

Munduko Hizkuntzaren Ondarearen UNESCO Katedra UPV/EHU Munduko hizkuntza-leihoak

HIZKUNTZA: MANDINKERA


Ingelesez Mandinkan da terminorik erabiliena mandinkera izendatzeko. Gaztelaniaz, ostera, mandingo ere esaten zaio.

Zenbait ikertzailek mandinka izenaz *mandinkera* bera ere barruan hartzen duen hizkuntza taldea izendatzen dute (Lewis, 2009; www.ethnologue.com). Badira zenbait niger-kongotar hizkuntza oso izen antzekoak dituztenak. Ikertzaile batzuk (Haspelmath *et al.*, 2008 (= *WALS*)) lau hizkuntza bereizten dituzte: mandinka (leiho honetako *mandinkera*, alegia), Gambiako mandinka; mendebaleko maninka eta maninka. Leiho honetan *mandinkera* (edo mandinka) izango da mintzagai, eta maninka eta malinkera (maninkakan izena ere baduena) beste leihoetan azalduko dira.

LURRALDEA ETA HIZTUNAK

Mandinkera Senegal hegoaldean hitz egiten da batik bat (Gambia ibaiaren hegoaldean: Kolda eskualdean), eta Gambia erdialdean eta mendebaldean. 2006. urtean, Ethnologuek (Lewis, 2009; www.ethnologue.com) 669.000 zirela zioen Senegalen *mandinkera* hiztun natiboak (13 milioi pertsonatik gertu bizi diren herrialde baten) eta 510.000 hiztun Gambian (1.700.000 inguruko biztanleriarekin). *Mandinkera* Guinea-Bisau iparraldean ere hitz egiten da, bertan, 167.000 dira hiztun natiboak (1.5 milioi pertsona bizi diren herrialdean). Beraz, *mandinkera* hiztun natiboen kopuru orokorra herrialde guztiak kontuan hartuta, 1.346.000 lagunetakoa da.

Ondoko mapan berdez margotu da mandinkeraz hitz egiten diren lurraldeak.



Iturria: Uranga *et al.*, 2008.

HIZKUNTZAREN EGOERA

Mandinkera hizkuntza nazionala da Senegalen eta Gambian. Hala ere, Senegalen, *mandinkerak* (beste hizkuntzek bezala) frantsesaren eta wolofaren nagusitasunarekin lehiatu behar du. Frantsesa hizkuntza ofiziala da baina wolofa ere erabilera zabaleko hizkuntza da, eta ia biztanleriaren %90ak hitz egiten du jakintza maila ezberdinetan. Ondorioz, *mandinkera* ez dago kultura hizkuntza bezala zabalduta. *Ethnologue-n*

arabera, 1989. urtean, Senegaleko *mandinkera* hiztun natiboen alfabetatze indizea, beren lehen hizkuntzan, %1aren azpitik zegoen.

Gambian, ordea, *mandinkera*, hizkuntza nazionala izateaz aparte, herrialdean hitz egiten den hizkuntza nagusia da. Gainera, nahiz eta ingelesa hizkuntza ofiziala izan, *mandinkera* egoera onean dago. Beren hizkuntzarekiko jarrera positiboa duten adin guztietako hiztunek hitz egiten dute eta bertako eskoletan haur hezkuntzan ere erakusten da. Ondorioz, Gambian, hiztun natiboen alfabetatze tasa (nahiz eta oraindik baxua den) Senegalen baino askoz altuagoa da: %10 inguru (*Ethnologue*). *Mandinkera* Gambiako irratian ere erabiltzen da. Zoritzarrez, jendeak *mandinkera* hizkuntzan, egunkariak irakurtzen ditu baina ez liburuak (Sullivan, 2004: 17). Aipatu beharrekoa da, azkenik, Gambian ere, *mandinkerako* %50 inguru arabiar alfabetoan idatzia dagoela (Lewis, 2009; www.ethnologue.com). Hala ere, azkenaldian, “*mandinkerarentzako* sistema ortografiko bat sortu da, idatzizko hizkuntzaren bateratze edo estandarizazio ahaleginak koordinatzeko helburuarekin” (Sullivan, 2004: 17).

HIZKUNTZAREN SAILKAPENA

Mandinkera hizkuntza niger-kongoar hizkuntza taldekoa da, mendebaldeko mandea azpitaldekoa (WALS, <http://wals.info>).

Talde honetako hizkuntzak askotan manding edo malinke izen generikoaz ezagutzen dira. Talde berdineko beste hizkuntza nagusiak (hau da, mendebaldeko mande hizkuntzak) dyula (Burkina Faso, Boli Kosta) eta banbara (Mali) dira. Talde honetakoak dira baita ere mendebaldeko maninkakan (Senegal, Gambia, Maliko mendebaldea) eta ekialdeko maninkakan (Guinea etab.).

Ethnologue-k (Lewis, 2009) *mandinkera*, ekialdeko maninkakan, eta mendebaldeko maninkakan beregaineko hizkuntzak izan daitezkeela proposatzen du, baina hala ere, mandingo deituriko makro-hizkuntza osatzen dute. *Mandinkera* eta talde bereko beste hizkuntzen arteko antzekotasunak hiztegia kontuan hartuta ondoren datozen bezala dira: %75 maninkakanarekin, Jahanka (Senegal); %70 mendebaldeko maninkakanarekin, (Mali); %59 xaasonga-xangoarekin (Maliko mendebaldea); %53 ekialdeko maninkakanarekin (Guinea); eta %48 bambararekin (Maliko ekialdea).

HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Beste mande hizkuntzak bezala, *mandinkerak* honako ordena du nagusiki: SA (subjektua-aditza) eta SOA (subjektua-objektua-aditza). Aditza bukaeran duen hizkuntza bat da, kasu oblikuoak aditzaren atzetik jartzen baitira: SOAX (subjektua-objektua-aditza-kasu oblikua). Are gehiago, *mandinkeran* atzizkiak ugariak dira eta postposizioak preposizioen ordeaz erabiltzen dira.

Fonologiari dagokionez, *mandinkerak* kontsonante arruntak ditu. Bokalak ere nahiko arruntak dira eta izatez, banbaran baino sinpleagoak dira (ekialdeko mandea). *Mandinkerak* bost bokal ahokari bakarrik ditu eta ez du bokal sudurkaririk, bokalen luzapena nabarmentzen du ordea (Sullivan, 2004: 21-22).

HIZTEGITXOA

kiliŋ, fuloo, saba, naani, luulu, wooro, woruwula, sey, kononto, taŋ
1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10

musoo, dinmusoo, baarimmusoo, dooma, kee/kewo/kendiŋo, dinkee, baarinkewo, dooma

emakumea, alaba, arreba/ahizpa, arreba/ahizpa/anaia/neba, gizona, semea, anaia/neba, arreba/ahizpa/anaia/neba

buño, baaroo/baara, duuroo/jiyo
etxea, lana, ura, eguzkia

m/n, ali/i, ate/a, ntelu, alitelu, í/itelu
ni, zu, hura, gu, zuek, haiek

i saama, i wulaara, i tiinañ, jayiroo
egun on, gabon, arratsalde on, eskerrik asko

diyaamu/kuma, siinoo
hitz egin, lo egin

ERAKUNDEAK ETA ESTEKAK

Mandinkera hizkuntzaren hastapenak:

<http://www.ikuska.com/Africa/Lenguas/maninka/index.htm>

Mandea azpitaldeko hizkuntzak:

<http://www.sil.org/silesr/2004/silesr2004-005.pdf>

Mandinkera – ingelesa hiztegia:

<http://www.africanculture.dk/gambia/ftp/mandinka.pdf>

Senegal eta Ganbiako hizkuntzen mapa:

http://www.ethnologue.com/show_map.asp?name=SN&seq=10

Mandinkerari buruzko informazio orokorra, Senegalekoa eta Ganbiakoa:

http://wals.info/languoid/lect/wals_code_mdk

http://wals.info/languoid/lect/wals_code_mkg

<http://www.kwintessential.co.uk/translation/mandinka/translation-service.html>

EREFERENTZIAK

Creissels, Denis (1983) *Éléments de grammaire de la langue mandinka*. Grenoble: Université des Langues et Lettres.

Haspelmath, Martin, Matthew S. Dryer, David Gil & Bernard Comrie (eds.) (2008) *The World Atlas of Language Structures Online (WALS)*. Munich: Max Planck [Digital Library. <http://wals.info/>]

Lewis, M. Paul (ed.) (2009) *Ethnologue: Languages of the World*. Sixteenth edition. Dallas, Texas: SIL International. [<http://www.ethnologue.com/>]

Rowlands, Evan C. (1959) *A grammar of Gambian Mandinka*. London: University of London.

Sullivan, Terrence D. (2004) "A preliminary report of existing information on the Manding languages of West Africa: Summary and suggestions for future research". SIL International. [<http://www.sil.org/silesr/2004/silesr2004-005.pdf>]

Uranga, B., Aierdi, X., Idiazabal, I., Amorrortu, E., Barreña, A. & Ortega, A. (2008) *Hizkuntzak eta Inmigrazioa. Lenguas e Inmigración*. Bilbao: Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedra, UPV/EHU.

www.ethnologue.com